

## Lan-legepeko hezitzaileak eta irakasleak

B  
A  
T  
Z  
O  
R  
D  
E  
  
P  
A  
R  
E  
K  
I  
D  
E  
A

### 2014ko martxoaren 31a

Ikasturte honetako bigarren batzorde parekide honetan jorratutako gaiak bi motatakoak izan direla esan dezakegu.

1. **Tramite hutsak direnak:** Urtero ateratzen diren deialdiei data aldatzen zaie eta aurrera!! Hauek dira bilera honetan aipatu zirenak:

- Leku-aldatze lehiaketa: Apirilaren 1etan zabalduko da deialdia.

STEE-EILAStik salatzen dugu LZ areagotu ez denez, finkoek lekualdatzea eskatzeko oso aukera gutxi dituztela. Beharrezko jotzen dugu LZ-aren eguneratzea.

- Datorren ikasturterako beharren aurreikuspena: Maiatza bukaerarako aztertuko dituzte beharrak.

STEE-EILAStik eskatzen dugu beharrak aztertzeko bilerak egin behar direla lurralde ordezkaritzetan. Ekaineko lehen astean egingo direla adosten da.

- Berritzegunetako langile finkoen esleipenak. Ekaina bukaeran egingo da Berritzeguneetan urtero bezala. Irizpideak finkatu nahi dira ez-ohiko egoerei erantzuna emateko
- Behin-behineko esleipenak. Administrazioak 2014-2015 ikasturterako ere deialdia ireki nahi duela azaltzen du. Deialdiaren proposamena datorren batzorde parekidean aurkeztuko duela adieratzen du.

STEE-EILAStik ados gaude deialdia irekitzearekin, formula honek, langile finkoei aukerak zabaltzen dizkiela argi ikusten baitugu. LZren egungo egoerak leku-aldatze lehiaketan oso aukera gutxi uzten baiditu. Hala ere, LZ eguneratzea ezinbestekoa dela ulertzen badugu ere, LZ handitzearekin batera behin-behineko esleipen hauek mantentzearen aldekoak azaltzen gara.

- LZ-ren aldaketa/eguneratzea: 2006tik ez da LZ areagotu. Administrazioak dio prozesua hasteko lehengo dokumentua prestatu duela. Beraien proposamena da: 120 HLE, 10 zeinu hizkuntzako interpretea eta 4 fisioterapeuta gehiagotan gehitzea.

STEE-EILAS Administrazioaren atzetik ibili da prozesu hau lehenbailehen martxan jartzeko, baina azkenean... berandu. Ikasturte honetarako ezinezkoa izango da, hurrengorako???

2. **Langileok eguneroko lanean ditugun arazoak:** Puntu honetan aurkitzen ditugun gaiak gure lana modu egokiz egitea oztopatzen dutenak dira. Guztiok ezagutzen ditugu gai hauek:

- Garraioa: Gai honek sortzen dituen arazoei erantzun argirik eman gabe jarraitzen du administrazioak. Berritzegune Nagusiko lan talde bat arlo hauei buruzko carpeta de servicios izeneko txosten bat burutzen ari dela adierazten dute.

Gai honek gero eta arazo gehiago sortzen ditu, funtzio honen barruan gero eta ardura gehiago sartzen ari direlako: anklajeak; autobuseko monitorea desagertzean, ikasle guztien ardura (ratioa)...

- Jantokia: Bazkalteko denbora nola konputatu behar den jornada partzialeko ordutegietan eztabaidatzen da. Administrazioak hori islatuko duen idazki bat prestatuko duela.

STEE-EILASEk azken bi puntu hauek ikutu ondoren, Administrazioari eskaera luzatzen dio datorren ikasturterako ordutegiak osatzeko jarraibideen zirriborroa lehenbailehen guri helarazteko. Urtero ematen diren arazo batzuk saihestu daitezke, jarraibide horietan doan informazioa egokia bada.

- Egutegia eta ordutegia: Langile batzuek beraien ordutegia ez sinatzeko arrazoiak aipatzen dira. Haien artean, Hauspoa programak eskeintzen dituen ekintzetan parte hartzearekin ados ez egotearena.

STEE-EILASEk hauxe aldarrikatzen du: Hauspoa programa ikasleentzat boluntarioa den heinen eta, kasu batzuetan, kurrikulumarekin loturarik gabekoa denez, ez da gure lan-eremua.

- Koordinazioa eta materialen prestakuntza eta Berritzeguneko bilerak. Hitzarmenak diona betetzea eskatzen da.
- Ikastetxeetako arazo batzuen analisisa. Puntu honetan, ikastetxe batzuetan sektoreko langileei agintzen dieten lan abusiboak salatzen dira.
- Segurtasuna eta Osasunari buruzko gai zehatzak.

Amatasun-bajak, osasun arazoengatik lanpostuak egokitzeko protokolo/akordioa... STEE-EILASEk gai horiek dagokion mahaira eraman ditu, hau da, Segurtasun eta Osasun batzordera.

- Ibiltaritza: fisioterapeutak eta logopedak: Administrazioak joan-etorriengatik ordainketak deituriko akordioa mahai gainean jartzen du guztiok sinatzeko.

Akordioan aipatzen diren termino batzuekin ados ez gaudenez, ez dugu sinatzen, administrazioari ados ez gauden puntuak zeintzuk diren azalduz. Administrazioak gure ekarpenak entzun ondoren, akordioa birmoldatuko duela adierazten du.

- Okupazio Terapeutak. Kolektibo honek ere ikasleen ratio handiegia ondoak pairatzen ditu. Erantzun egokia behar duten ikasle guztiei emateko, Administrazioak langile gehiago kontratatu beharko luke.

- Erretiro partziala/errelebo-kontratua: Errelebo-kontratua beteko duenari deitza izeneko akordio bat sinatzen dugu batzorde parekidean. Errelebo-kontratua ordezkogaien zerrendan lehen tokian dagoen langileari, aktiboan egon edo ez, eskainiko zaiola adostuz akordio honen bidez.

**STEE-EILASen ustez, akordio hau ona da erretiro partziala hartu nahi duen langileentzat, baita ordezkoentzat ere.**


---

Bilera honetan aztertu diren gaiak sindikatuok urtero-urtero ateratzen ditugu Batzorde Parekide guztietan eta, tamalez, etorkizunean ere ateratzen jarraitu beharko ditugu. Beste erremediorik ez daukagu. Arrazoia da: **Administrazioak gure arazoei inoiz ez dielako erantzunik ematen**, eta denborarekin, hauek desagertu beharrean, areagotzen joaten dira.

**Arazo bati buruz ez hitz egiteak ez du hori desagertarazten.** Momentuz, hitz eginez ere ez da ezer lortu, baina... gure aldetik, behintzat, saiakerak egiten eta egingo dira.

---

**STEE-EILAS**



| ARABA  | BIZKAIA   | GIPUZKOA  | NAFARROA  |
|--|---|---|---|
| Eulogio Serdán, 5. behea<br>01012 – Gasteiz<br>Telf.: 945 14 1104<br>Email: <a href="mailto:araba@stee-eilas.org">araba@stee-eilas.org</a> | Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)<br>48003 – Bilbo<br>Telf.: 94 410 02 98<br>Email: <a href="mailto:bizkaia@stee-eilas.org">bizkaia@stee-eilas.org</a> | Baso-txiki, 30-34 (atzekaldea)<br>20006 – Donostia<br>Telf.: 943 46 60 00<br><a href="mailto:gipuzkoa@stee-eilas.org">gipuzkoa@stee-eilas.org</a> | Joaquin Beunza, 4 - 6<br>31014 – Iruñea (Rochapea)<br>Telf.: 948 21 23 55<br><a href="mailto:nafarroa@stee-eilas.org">nafarroa@stee-eilas.org</a> |